

BESTELAKO XEDAPENAK

ELIKADURA, LANDA GARAPEN, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

5526

EBAZPENA, 2024ko azaroaren 21ekoa, Portu eta Itsas Gaietako zuzendariarena, Bermeoko Portua Babesteko Aholku Batzordearen osaera aldatzen duena.

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2005eko urriaren 26ko 2005/65/CEE Zuzentzarua, Portu-babesa hobestekoa, Espainiako antolamendu juridikoan gehitu zen Portuen eta itsas garraioaren babesa hobesteko neurriak ezartzen dituen 2007ko abenduaren 7ko 1617/2007 Errege Dekretuaren bitartez.

Aipatutako Errege Dekretu horren 8.2 artikulua ezartzen du portua babesteko aholku batzordearen osaera, bai eta bertako kideak izendatzeko eskumena nork duen ere.

Zenbait administrazioen barne-egituran egindako aldaketen ondorioz, eta Bermeoko portua babesteko Aholku Batzordearen osaera eguneratuta egon dadin, honen bidez Batzordearen osaera aldatzen da.

Portu eta Itsas Gaietako zuzendariak, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen otsailaren 23ko 68/2021 Dekretuak emandako eskumena baliatuz, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuari lotuta, hau

EBAZTEN DUT:

Bermeoko Portua Babesteko Aholku Batzordearen osaera aldatzea:

– Koldo Goitia Markuerkiaga, Portu eta Itsas Gaietako zuzendaria, Aitor Etxebarria Atutxaren ordez. Batzordeburua da.

– Pablo José Lavandera Inchaurrendieta, Babes Zibileko Unitateko burua. Gobernuaren Bizkaiko Ordezkariorde da.

– Alberto Recacoechea Olabarria, Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saileko Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzako Larrialdien Plangintzako teknikaria, José San Antón Garaitaren ordez.

– Javier Gallardo Cabezuelo, Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saileko Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzako Larrialdien Plangintzako teknikaria. Ordezko batzordekidea.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko azaroaren 21a.

Portu eta Itsas Gaietako zuzendaria,
KOLDOBIKA GOITIA MARKUERKIAGA.